

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak enpresa ondo joateko oinarrizkoak iruditzen zaizkigu, ezinbestekoak direlako enpresa batek bere balorezko proposamena egin, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentzeko eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan. Horregatik, lana banatzeko, bakoitzak duen abileziaren arabera banatuko dugu. Guk egingo ez ditugun lan batzuk ere egongo dira, baina funtsezko elkarteetan espezifikatuko ditugu zeintzuk diren.



Garraioaz, Garazi arduratuko da. Bere aitak furgoneta duela aprobetxatuz, garraioak egiteko erabiliko dugu. Gainera, Garazik orain dela urte batzuk karneta atera zuela jakinda, bera izango da gidaria. Horrez gain, alokatuko dugun tailerrean gauzak gordetzeaz ere arduratuko da, hau da, kasu honetan materialaz. Mantenua ere bere kontu egongo da eta zerbait apurtzean edo gaizki doanean Garazi arduratuko da arazoaz.

Bezeroekin kontaktuan egoteari lotuta, denok edukiko dugu erabiltzen ez dugun mugikor bat, zenbaki berdinarekin enpresako mugikor bezala. Hauek deiak egiteko eta horrekin batera udaletxeen deiak hartzeko erabiliko ditugu.

Finantza baliabideei lotuta, Markel arduratuko da adibidez kanpo baimen edo hitzarmenak lortzeaz, kontuak eramatearekin batera. Matematiketan oso ona izan denez txikitatik eta oraindik nota oso onak lortzen jarraitzen duenez, gai onetan ona izango dela uste dugu; gainera, baliagarriak izango zaizkigu bere ezagutzak.,

Aurrekoari erreparatuz, obra baimena eta antzeko hitzarmenak lortzeko ez dugu arazo handirik izango, alabaina, gehienetan udaletxearekin lan egiten egongo garenez baimen hauen eskuratzea erraztuko digute.

Gaitasun komertzialaz arduratuko dena, Sara izango da, izan ere, harremanetarako eta bezeroez arduratzeko egokiena iruditzen zaigun taldekidea da. Horretaz gain, enpresaren web orriaren kargu ere egongo da.

Eñautek ere beste zeregin bat izango du; takilaren diseinuaz arduratuko da, oso trebea delako marrazten, margotzen...eta izugarritzko irudimena dauka, hori

dela eta iruditzen zaigu bera izan daitekeela zeregin honetaz arduratzeko taldekide egokiena.

Produktuaren edo takilaren erabilera nola joan den jakiteko asmoarekin, inkesta bat pasako diegu gure bezeroei, gure produktua hobetzeko aukera izateko, dituen arazoetatik abiatuta eta ideia berrietara ere irekita egongo gara. Gure bezeroak udaletxeak izan harren produktua herritarrek erabiliko dute eta beraiekin komunikatzeko aukera handirik ez dugunez, inkesta hauek ongi etorriko zaizkigu harremanetarako eta beraien beharrei lagundu ahal izaten jarraitzeko.